

APUNTE DEL DIRECTOR

JOSÉ ANTONIO RODRÍGUEZ RANZ

GURE ESKU DAGO!

Gure esku dago. Bai, neurri handi batean, gure esku dago. Eta horrek eman beharko liguke hauspoa, indarra eta kementa, nahiz eta jakin dena ez dagoela gure esku. Derrotista? Desmobilizatzailea? Ez. Kontrakoa.

Gure esku dago, neurri handi batean, gizarte politikak gurean ezberrik gabeko lehentasuna izatea, aukera berdintasuna bermatzea, inor bazter ez uztea, gizarte kohesioa, guztion ongizatea, justizia soziala eta giza eskubideak gure herriaren ikur bilakatzea.

Gure esku dago, neurri handi batean, emakumezkoen eta gizonezkoen arteko genero berdintasuna, diskriminaziorik eza, indarkeria mota guztiak errotik ateratzea, kristalezko sabaiekin haustea.

Gure esku dago, neurri handi batean, gure hezkuntza sistema etengabe berritzen ahalegintzea, XXI. mendeko herrikide eta mundukide bezala indartu eta garatu nahi ditugun konpetentzia eta balioetan gure haur eta gazte hezitzea eta hazitzea, gure unibertsitateek bikaintasunezko bidean nabarmen aurre egitea.

Gure esku dago, neurri handi batean, gure enpresak gero eta lehiakorragoak

izatea, lankidetzazko ereduetan sakontzea, industria 4.0 eta bestelako industria iraultzetan lehen lerroan izatea, turismo jasangarriaren aldeko apustuari eustea.

Gure esku dago, neurri handi batean, gure herriak eta hiriak bizitzeko kabi goxo izatea, porlana, berdea eta balioak uztartzea, euskal hiriburuen arteko sarea ehuntzea, Iparraldearen, Nafarroaren eta EAEaren arteko gure muga eta harresi mentalak haustea.

Gure esku dago, neurri handi batean, euskarak hartu behar duen tokia hartzea, euskal kultura behingoz eta betikoz ghetto-tik ateratzea, komunikabide eredu propioa lantzea, etxeko salan gaudenean mandoa-ren botoi bat edo beste sakatzea.

Gure esku dago, neurri handi batean, gobernantza eredu berrietan benetan sine-tsi eta gauzatzea, kaleetako eta erakundee-tako ahotsak bat etortzea, politikaren izen eta izan ona berreskuratzea, duintasunaren eta gardentasunaren ispilu izatea.

Gure esku dago, neurri handi batean, bide berriak esploratzea, naziogintzan eta berrikuntza politikoan urratu gabeko bideetan barrena egitea, gure nazio proiektura gero eta herrikide gehiago erakartzea, etorkizunezko mapa mundian Euskal Herria argi propioarekin distira egitea.

Ez dut zalantzarik... pausoz pauso...

Gure esku dago!